

Euzkitze eta Peña 'Txootx!' ikuskizunean ariko dira bertsoan Oialume dantzalekuan

► Iganderako dantza, musika eta bertso jaialdia antolatu dute Hernanin

IÑIGO GOÑI

ANDOAIN. DV. Igandean, martxoak 13, eguerdiko 12:00etan, Hernaniko Oialume dantzalekuan ospatuko den *Txootx!* ikuskizuna aurkeztu zuten atzo Sagarrondotik egitasmoaren antolatzaileek Martin Ugalde Kultur Parkean. Bertan elkar lanean ariko dira Aiztondo abesbatza, Ereintza dantza taldeko txistulariak eta dantzariak eta Anjel Mari Peñagarikano eta Xabier Euzkitze bertsolariak.

Xabier Euzkitze berriz ere tabladu gainean bertsoan ikusteko aukera paregabea izango da. Bertsoan aritzeari orain sei urte utzi eta gero Xabier Euzkitze gutxitan jardun baita jendaurrean. Ikuskizun honen aurrekari izan zen Getarian pasa den udaran Ameztoi txakolindegian Musika Hamabostaldiaren barnean eginkoa. «Getariako esperientziak pozik eta lasai utzi gintuen. Oso ongi girotua zegoen. Gauza atsegina, bizia, gustagarria, geldialdirik gabe aspertzeko unerik uzten ez zuen ikuskizuna eskaini genuela iruditzen zaib» esan zuen atzo Euzkitzek.

Oialume dantzalekuan antolatuturiko ikuskizun berri honen inguruan Euzkitzek zera dio: «Oraingoan ere konfiantza osoa daukagu dantzariekin, abesbatzarekin, oinarri ona daukagu, inprobisaziorako parada ere badaugu eta aurkezpenak gure kargu izango dira. Umorearekin ere txispa jartzen saiatuko gara».

Jon Maya Ereintza dantza taldeko dantzari eta ikuskizuneko partaidearen esanetan, ikuskizuna partaidea guztien bilgune bat izango da: «Ez da ikuskizun berria, ez dugu ezer asmatu, oso ezagunak diren kantzak, dantzak



Jon Maya, Xabier Euzkitze, Anjel Mari Peñagarikano eta Igor Arroyo ikuskizuneko kartelarekin. [MIKEL FRAILE]

Apirilean Benito Lertxundi

I.G.

Txootx! dantza, musika eta bertso jaialdia Sagarrondotik antolatzen ari den ikuskizunen barnean kokatu behar da. Eguerdiko 12:00etan hasiko da eta bi zati izango ditu. Lehen zatian, dantzalekuaren sarreran sokadantza dantzatuko dute Ereintza dantza taldekoak. Ondoren Oialumera sartu eta bigarren zatia, jaialdia, hasiko da bertsolarien

dira. Gure kulturak dituen aspaldiko osagarri batzuk bildu eta erakusteko ikuskizun polit bat egin nahi dugu. Sagardotegi giroan, mahai inguruan sorturiko hainbat dantza eta kantu aipa litezke, nahiz eta askotan edanaren alde txarrak bakarrik komentatzen diren. 50-60 lagunek naturaltasun

agurrarekin. Bertan tartekatuko dira Aiztondo abesbatzaren kantuak, Ereintza dantza taldekoen dantzak eta txistularien musika, eta bertsolarien bertsoak. Oialume Zar sagardotegiaren bazkaria egingo da ondoren. Bazkarirako sarrera gutxi geratzen dira baina hala ere Martindegi auzoan sagardotegi aukera ugari dago.

Sagarrondotik-en barruan ikuskizun eta ekitaldi desberdi-

osoz eta denan bistan eskainitako ikuskizuna izango da»

Aiztondo abesbatzak Getarian aritu zen Landarbaso abesbatzaren testigua hartu du. Igor Arroyo zuzendariaren esanetan, «guretzako, Astigarragoak izanda erronka polita da eta beste artisten mailan egoten saiatuko

nek jarraituko dute udaberrian zehar. Adibidez, apirilean Benito Lertxundi abeslari oriotarraren kontzertua antolatuko da eta maiatzean sagardo muestra.

Aurreko asteburuan Hernanin eta Urnietan antolaturiko kontzertu eta ekitaldiek arrakasta handia izan zuten, 6.000 lagun izan ziren The Wailers-en ostiraleko kontzertuan eta 10.000 lagun larunbateko kontzertuetan. Antolatzaileen hitzetan, «leku guztietatik etorri zen jendea baita frantziar estatuko hirietatik ere».

gara». *Txootx!* jaiako sarrera 10 euro kostatzen da eta honako lekuetan lortu daiteke: Hernanin Lete liburudendan, Leokadisti liburudendan, Aralar tabernan eta Oialume tabernan. Donostian Bilintx liburudendan. Errenterian Arkaitza tabernan eta Astigarragan Kizki tabernan. ■